

## ARIKETAK

1 Irakurri arretaz gutun hau, eta saiatu zuzentzen eta hobetzen. Horretarako honako hauek izan behar dituzu gogoan:

- ▶ Idazkiaren ezaugarriak eta diseinua: helbidea, lerrotzteak, izenburua, letra...
- ▶ Estiloa: ideiak paragrafoka, garrantzitsuena aurreratu, oin-oharrak...
- ▶ Gramatika: hizki larriak eta xeheak, zenbakien deklinabidea...

**Erkuden Saratsua Balenkaleku**  
Talde Negoziaziorako zuzendaria  
Ogasun eta Herri Administrazio Saila

Estimada señora:  
Como sabe, con fecha 2 de junio de 2002, publicamos en la prensa una convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de arquitectos/as técnicos. Como, según el artículo 5 del Acuerdo del Consejo de Gobierno de 6 de mayo de 1997, para constituir el Tribunal Calificador es preciso designar representantes de los trabajadores, nos dirigimos a U. para que nos remita los nombres de dichos representantes antes del día 12 de junio. Adjuntamos, asimismo, una descripción detallada de las características del puesto en cuestión.

Atentamente.

Vitoria-Gasteiz, a 3 junio de 2002

Irene Zubiaurre Lekerika  
Directora del IVAP  
IVAPeko zuzendaria

Andre hori:

Dakizunez, Arkitekto teknikoen lan-poltsa sortzeko deialdia iragarri genuen 2002ko ekainaren 2ko egunkarietan. 1997ko maiatzaren 6an Gobernu Batzordeak hartutako Erabakiaren 5. atalaren arabera Epaimahaia osatzeko langileen ordezkariak izendatu behar direnez, ordezkari horien izenak ekainaren 12a baino lehen eman beharko dizkiguzu. Honekin batera doazkizu lanpostuaren betebeharren zehaztapenak.

Horrenbestez, agur.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 3an

2 Esaldi hauek ez dira zuzenak. Berridatz itzazu:

1. Gaur egun bada klase sozial bat ez dela ez nahiko aberatsa, ez nahiko pobrea, eta ezin duela diru-laguntzarik jaso.  
\_\_\_\_\_
2. Baietz egiten ditudala zuk baino tanto gehiago!  
\_\_\_\_\_
3. Segurtasun erakundearen arabera, ordea, hori da birus bat arrisksua izan daitekeela.  
\_\_\_\_\_
4. Bestalde, bada jende asko gure filosofia ez duela ulertzen edo ez duela ulerti nahi; beraz, nik esango nuke bi multzo desberdin daudela: errespetatzen gaituztenak eta gainerakoak.  
\_\_\_\_\_

# A R I K E T A K

5. Monopolioa? Noski baietz, eta beti bezala monopolio hori pairatzen dutenak garraiolariak izaten dira.

---

6. Hain da ikaragarri anitza Interneten aurkitu dezakegun informazioa, ez dela posible dena begi kritikoz aztertzea.

---

7. Langabezia, Aznarren garaiko eta osteko Espainian, noski igotzen ari dela.

---

8. Telesail hori hain da lotsagarria ez diedala haurrei ikusten uzten.

---

9. Noski ez dudala libururik entzungo irakurri ahal baditut.

---

10. Jakina baietz! Badirela salbuespenak; hori bai; ikusteko bakoitzak bere zilborretik harago begiratu behar du.

---

11. Hainbeste eta hainbeste ikastaro jaso ditu azken urteetan ez duela arazorik izango berak bat emateko.

---

12. Jakina sortzen duela sentimendu bizi bat, baina hori Elizak bere baitan duen aniztasunaren erakusbide argia da.

---

13. Niri ez eskatu, nik ez daukat liburu bat haren gustukoa dela.

---

14. Kontuz eroriko zaizula!

---

15. Gonbidatu duzu? Noski ezetz. Nola gonbidatuko nuen ba!

---

### 3 Hutsuneak bete, *omen/ei, ote* eta *ahal* partikulak erabilia:

1. Ardo ttantto bat hartuz gero, burua txartu egiten \_\_\_\_\_ zaio.

2. Lehengoetan ezer handirik atera ez bazuen, oraingoan zerbait egingo \_\_\_\_\_ du!

3. Aldi txarrak hartuta hankaz gora jausi \_\_\_\_\_ zen mutila.

4. Zergatik \_\_\_\_\_ doaz hainbeste lagun korrika bide aldera?

5. Ume samurtxo horiek osasunaz biziko \_\_\_\_\_ dira, zaharren zaharrez hil arte!

6. Sagarra \_\_\_\_\_ da esteak garbitzeko onena.

7. Ez \_\_\_\_\_ du horrelako lanik gehiago egingo, euskara euskara den arte.

8. Oso ondo ere ez dakit, ba, \_\_\_\_\_ gauden!

9. Baserritarrei ezin \_\_\_\_\_ zien ezer aterarazi: beldur \_\_\_\_\_ ziren Santa Cruz-ek gero jorratuko \_\_\_\_\_ zituen.

10. Edari gaiztoak galduko \_\_\_\_\_ hau!

11. Aldi txarren batek jo \_\_\_\_\_ zion beldur nintzen.

12. Burua harrapatu \_\_\_\_\_ zion gaitzak.

13. Ez \_\_\_\_\_ zekien labeko surik egiten.

## 4 Erreparatu ondoko esaldien juntaturari. Izan ere, juntadura akatsak jarri ditugu.

1. EUSTATEk argitaratutako azken datuen arabera 3.219 dira EAEko unibertsitateetan dauden ikertzaileak, eta beste horrenbeste dira administrazio eta enpresetan daudenak (3.244).
2. ELA, LAB, ESK eta EILAS Barakaldon bildu ziren, Administrazioa eta patronalak laneko istripuak galarazteko neurri gehiago har ditzaten eskatzeko.
3. Zu, ni, eta beste hiruri bihar ekarriko digute ordenagailu berria.
4. Ni eta zutaz hitz egiten egon dira gaurko bileran.
5. Ingelesa eta frantsesari buruzko hitzaldia egingo da Deustuko Bidebarrieta liburutegian.
6. Gobernua eta oposizioaren arteko elkarrizketak bide onetik joan dira.
7. Zeri ala nori diozu beldur?
8. Administrazioko langileak aukeran dauka eszedentzia eskatzea. Izan ere, nahitaezkoa ala borondatezkoa izan daiteke.
9. Biharko bilera benetan garrantzitsua izango da, hil ala biziko kontuak erabakiko baitira.
10. Nire lankideak beti egiten du gauza bera: ordenagailua piztu, kafea hartzen eta ordu betera bueltatu.

# S O L U Z I O A K

## 1

**Erkuden Saratsua Balenkaleku**  
 Talde Negoziaziorako zuzendaria  
 Ogasun eta Herri Administrazio SailaOn

---

**LANGILEEN ORDEZKARIAK IZENDATZEKO ESKARIA**  
**SOLICITUD DE NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DE LOS TRABAJADORES**


**Andre hori:**

Dakizunez, arkitekto teknikoen lan-poltsa sortzeko deialdia iragarri genuen 2002ko ekainaren 2ko egunkarietan.

Epaimahaia osatzeko, langileen ordezkariak izendatu behar dira<sup>1</sup>; hori dela eta, ekainaren 12a baino lehen eman beharko dizkiguzu ordezkari horien izenak.

Honekin batera doazkizu lanpostuaren bete-beharren zehaztapenak.

Horrenbestez, agur.



Irene Zubiaurre Lekerika  
 IVApeko zuzendaria

Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 3a

**Estimada señora:**

Como sabe, con fecha 2 de junio de 2002, publicamos en la prensa una convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de arquitectos/as técnicos.

Para constituir el Tribunal Calificador es preciso designar representantes de los trabajadores<sup>1</sup>; por ello, le solicitamos que nos remita los nombres de dichos representantes antes del día 12 de junio.

Adjuntamos, asimismo, una descripción detallada de las características del puesto.

Atentamente.

<sup>1</sup> Gobernu Batzordearen 1997ko maiatzaren 6ko Erabakiaren 5. atala.

<sup>1</sup> Acuerdo del Consejo de Gobierno del 6 de mayo de 1997: artículo 5.

# SOLUZIOAK

## 2 Esaldi hauek ez dira zuzenak. Berridatz itzazu:

1. Gaur egun bada klase sozial bat ez **dena** ez nahiko aberatsa, ez nahiko pobrea, eta ezin **du** diru-laguntzarik jaso.
2. **Egin baietz** zuk baino tanto gehiago!
3. Segurtasun erakundeen arabera, ordea, **birus hori arrisksua izan daiteke**. Segurtasun erakundeen arabera, ordea, **bada birus bat arrisksua izan daitekeena**.
4. Bestalde, bada jende asko gure filosofia ez **duena** ulertzen edo ez **duena** ulertu nahi; beraz, nik esango nuke bi multzo desberdin daudela: errespetatzen gaituztenak eta gainerakoak. **Bestalde, jende askok ez du gure filosofia ulertzen edo ez du ulertu nahi**; beraz...
5. Monopolioa? **Noski**, eta, beti bezala, monopolio hori pairatzen dutenak garraiolariak izaten **dira**.
6. **Hain** da ikaragarri anitza Interneten aurkitu dezakegun informazioa, **ezen** ez **baita/den** posible dena begi kritikoz aztertzea. Ez **da** posible dena begi kritikoz aztertzea, **hain** da ikaragarri anitza Interneten aurkitu dezakegun informazioa.
7. Langabezia, Aznarren garaiko eta osteko Espainian, **noski**, igotzen ari **da**.
8. Telesail hori **hain** da lotsagarria, **non** ez **baitiet/diedan** haurrei ikusten uzten. Ez **diet** gure haurrei telesail hori ikusten uzten, **hain** da lotsagarria.
9. Ez dut libururik entzungo, **noski**, irakurri ahal baditut.
10. **Jakina, badira** salbuespenak; hori bai; ikusteko bakoitzak bere zilborretik harago begiratu behar du.
11. **Hainbeste** eta hainbeste ikastaro jaso ditu azken urteetan, **non** ez **baitu/duen** arazorik izango berak bat emateko.
12. Sortzen du sentimendu bizi bat, **jakina**, baina hori Elizak bere baitan duen aniztasunaren erakusbide argia da.
13. Niri ez eskatu, **nik ez daukat haren gustuko libururik**. Niri ez eskatu, **nik ez daukat haren gustukoa den libururik**.
14. Kontuz erori egingo **zaizu-eta!**
15. Gonbidatu duzu? **Ez, noski**. Nola gonbidatuko nuen ba!

## 3 Hutsuneak bete:

1. *omen/ei*
2. *ahal*
3. *ei/omen*
4. *ote*
5. *ahal*
6. *omen/ei*
7. *omen/ei*
8. *ote*
1. *omen/ei; omen/ei; ote*
9. *ahal*
10. *ote*
11. *omen/ei*
12. *ei/omen*

## 4 Erreparatu ondoko esaldien juntadurari. Izan ere, juntadura akatsak jarri ditugu.

1. EUSTATEk argitaratutako azken datuen arabera 3.219 dira EAeko unibertsitateetan dauden ikertzaileak, eta beste horrenbeste dira **administrazioan eta enpresetan** daudenak (3.244).
2. ELA, LAB, ESK eta EILAS Barakaldon bildu ziren, **Administrazioak eta patronalak** laneko istripuak galarazteko neurri gehiago har ditzaten eskatzeko.
3. **Zuri, niri, eta beste hiruri** bihar ekarriko digute ordenagailu berria.
4. **Nitaz** eta **zutaz** hitz egiten egon dira gaurko bileran.
5. **Ingelesari eta frantsesari** buruzko hitzaldia egingo da Deustuko Bidebarrieta liburutegian.
6. **Gobernuaren eta oposizioaren** arteko elkarrizketak bide onetik joan dira.
7. Zeri **edo** nori diozu beldur?
8. Administrazioako langileak aukeran dauka eszedentzia eskatzea. Izan ere, nahitaezkoa **edo** borondatezkoa izan daiteke.
9. Biharko bilera benetan garrantzitsua izango da, hil ala biziko kontuak erabakiko baitira. **Zuzen**. Biharko bilera benetan garrantzitsua izango da, hil edo biziko kontuak erabakiko baitira. **Hobe**.
10. Nire lankideak beti egiten du gauza bera: ordenagailua pizten du, kafea hartu eta ordu betera bueltatu. Nire lankideak beti egiten du gauza bera: ordenagailua piztu, kafea hartu eta ordu betera bueltatzen da.